



**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2019KO EKAINAREN 17EKO EBAZPENA, 2019-2020KO IKASTURTERAKO ESLEITZEKO PROZEDURA AUTOMATIZATUEI BEGIRA IRAKASLEEN ORDEZKAPENAK EGITEKO ORDEZKOGAIEK EMAN BEHARREKO LURRALDE HISTORIKOAREN ETA LANALDI MOTEN AUKERAK ALDATU AHAL IZATEKO EPEA ETA PROZEDURA EZARTZEN DITUENA**

Irakasleen ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrenda urtero birbarematzeko prozesuan, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan pertsonal irakaslearen ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrenda kudeatzeari buruzko araudiak, - Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketako Sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduaren bidez eman zen araudi hori argitara,- xedatutakoaren arabera egin zituzten zerrenda hori integratzen zuten pertsonak beren aukerak.

Pertsona horiei begira, informatikoki parte hartzeko sistema baten bidez eramango da aurrera 2019-2020 ikasturte hasierako esleipen-prozeduran eta sistema hori hezkuntza maila guztietan iristen da.

Halaber, Hezkuntza sailburuaren 2018ko maiatzaren 18ko aginduak xedatzen duena aplikatuz,- agindu horren bidez hirugarren aldiz aldatzen da 2011ko uztailaren 15eko agindua, irakaskuntza-kidegoetara sartzeko praktika-fasea egin behar duten pertsonen eta irakasleen ordezkapenak egiteko zerrenda integratzen dutenei begira ikasturtearen hasierako esleitzeko prozesua arautzen duena, eta 2012ko urriaren 9ko agindua, pertsonal irakaslearen aldi baterako premiak informatikoki betetzeko prozedura premia horiek irakasleen ordezkapenak egiteko integratzen duten pertsonen esleitzu arautzen duena, aldatzen du, -bitarteko informatikoen bidez ere esleituko dira ikasturtearen hasierako prozesuan esleitu gabe geratzen diren lanpostuak, baita ikasturtearen hasiera hori dela-eta hezkuntza-zerbitzua emateko behar diren gainontzeko lanpostuak ere.

Bi prozesuetan, helbidea ikastetxe publikotik 50 kilometro baino gehiagoko distantzia batera dagoen arren, ezin izango zaio lanaldi murrizteko lanpostu bati uko egin, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2011ko uztailaren 15eko aginduak, irakaskuntza-kidegoetara sartzeko prozesuan praktika-fasea egin behar duten pertsonen eta irakasleen ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrenda integratzen dutenei begira ikasturtearen hasierako esleitzeko prozesua arautzen duenak, distantziaren baldintza hori aipatzen duen arren.

Zirkunstantzia horri erreparatuta eta aipatutako xedapen gehigarriak bigarren atalean zehaztutakoa aplikatuz, epe bat arbitratu behar da, interesatuek eman beharreko lurralde historikoaren eta lanaldi motaren aukerak aldatu ahal izateko.



Epe horretan eskatzen diren aldaketak ondorengo puntuetarako bakarrik hartuko dira kontuan: 2019-2020ko ikasturtean esleitzeko prozedura automatizatuan parte hartzeko, eta ikasturtearen hasierako prozesuan esleitu gabe geratzen diren lanpostuak eta hezkuntza-zerbitzua emateko beharrekoak diren gainontzeko lanpostuak esleitzeko geroago, 2019ko irailaren, egingo den prozesurako. Prozesu horiek bukatu ondoren, birbarematze-prozesuan adierazi zituzten aukerekin jarraituko dute eskatzaileek eta 2019-2020ko ikasturterako ordezkogaien behin-betiko zerrendan geratuko dira.

Horren arabera,

### EBAZTEN DUT:

#### **Lehena.- Epea**

2019ko uztailaren 1etik 5ra arte (biak barne) ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrendan dauden pertsonak aldatu ahal izango dituzte 2019-2020 ikasturterako birbarematze-prozesuan adierazi zituzten eman beharreko lurralde historikoaren eta lanaldi motaren aukerak.

#### **Bigarrena.- Eskaera**

Ebazpen honen eranskin gisa agertzen den eredia, Hezkuntza Sailaren web orrian ([www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus)) eskuratu ahal izango dena, erabiliz aurkeztu beharko da eskaera.

Eskaerak eman beharrezko lurralde historiaren eta parte hartu nahi duen lanaldi motaren azken egoera adieraziko du eta bi ataletan bereiziko da:

- a) 2019-2020ko ikasturtean esleitzeko prozedura automatizaturako lurralde historikoaren eta lanaldi motaren aukerak,- izan ere. 2011ko uztailaren 15eko aginduak, irakaskuntza-kidegoetara sartzeko prozesuen praktika-fasea egin behar duten pertsonen eta irakasleen ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrenda integratzen dutenei begira ikasturtearen hasierako esleitzeko prozesua arautzen duenak, arautzen du esleitzeko prozedura automatizatu hori,-.
- b) Iraileko lanpostuak eta automatizatuan esleitzeko prozesurako lurralde historikoaren eta lanaldi motaren aukerak, 2018 maiatzaren 18ko aginduak, 2011ko uztailaren 15eko agindua aldatzen duenak, xedatutakoaren arabera

Hori horrela, eskaera aurkezten duten pertsonen eskaera horretan adierazten dituzten eman beharreko lurralde historikoaren eta lanaldi motaren aukerekin hartuko dute prozesu bakoitzean parte 2019-2020 ikasturtean irakasleen ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrenda birbarematzeko prozesuan adierazi dituztenak zeintzuk diren alde batera utzita.





### **Hirugarrena.- Publizitatea**

Aurreko artikuluan aipatzen den eskaera aurkezten duten pertsonak hautatutako lurralde historikoaren eta lanaldi motaren aukerak 2019-2020ko ikasturterako esleitzeko prozedura automatizatueta eskaerak aurkezteko epea ireki aurretik emango dira argitara, Hezkuntza Sailaren web orrian ([www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus)) argitara emango diren ebazpenen bidez.

### **Laugarrena.- Ondorioak**

Eman beharreko lurralde historikoaren eta lanaldi motaren aukeretan izandako aldaketak, ebazpen honetan ezarritako epean eskatzen badira, 2019-2020ko ikasturterako esleitzeko prozedura automatizatuan parte hartzeko, edo iraileko lanpostuak ere automatizatuan esleitzeko prozesurako, besterik ez dira kontuan hartutako, pertsona bakoitzak eskaeran adierazitakoaren arabera.

Prozesu horiek bukatu ondoren, irakasleen ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrenda birbarematzeko prozesuan adierazi zituzten aukerekin jarraituko dute 2019-2020ko ikasturtean eskatzaileek. Aukera horiek 2019-2020ko ikasturtean ordezkapenak egiteko Hezkuntza Sailak argitara emango duen ordezkogaien behin-betiko zerrendan jasota agertuko dira.

### **Errekurtsoak**

Gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko ekainaren 17an



HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

**JON AGIRRE HUEROA**  
**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**